

Kimu

Haur eta gazte publikoari zuzendutako arte eszenikoen inguruko formakuntzan parte-hartzeko deialdia

« *Pertsona heldu guztiak lehenik haurrak izan dira.
(Baina gutti hortaz oroitzen dira.)* »
Antoine de Saint-Exupéry, Printze Txikia

1.- Testuingurua

Arte eszenikoen arloko eragileek gure haurren formakuntza pertsonal, intelektual zein kulturealean zeresan haundia dute. Publiko honi proposatzen zaizkion sorkuntzak, euskaraz, dimentsio oso garrantzitsua hartzen dute ikusle hauen ibilbidea aberasteko eta eraikitzeko, umezarotik gaztarora.

Gaur egun ikuslego honi zuzendutako euskarazko antzerki, dantza, zirko edo txotxongilo arloetako eskaintza murriztua gelditzen da hainbat arrazoiengatik. Egoera ikusita, Hegoaldeko zein Iparraldeko kultur arloko lehen mailako eragile batzuk, Donostia 2016 proiektuaren bultzada baliatuz, elkarlanean urrats bat ematea erabaki dute.

Euskal ikasle kopurua haunditzen ari da urtez urte, eta eskari honi modu egokian eta kalitatezko lanekin erantzuteko, 2016 eta 2017an zehar formazio programa ez-ohiko batean parte-hartzeko deialdia da honakoa.

Programa honetan parte-hartzeko, Iparraldeko eta Hegoaldeko lau artista hautatuko dira. Zuzendaritza osatuko duten segipen taldeko kideek, hautatutako lau artistekin batera, hauen profilera egokitutako formazio saio eta bidai ezberdinez osatutako ibilbide bana diseinatuko dute. Hamabi hilabeteren buruan hainbat nazioarteko jaialdi eta workshop-etan parte-hartzeko plangintza izango da, hain zuzen, ibilbide honen bizkar-hezurra.

Jarraipen taldea hurrengo erakundeek izendatutako ordezkarietz osatua egongo da: Euskal Kultur Erakundea, Donostia 2016 Fundazioa, Donostia Kultura, Hego Lapurdiko Hirigunea, Teatro Paraiso eta Biarritz Culture.

2.- Xedea

Haur eta gazte publikoari zuzendutako euskarazko arte eszenikoen sorkuntza aberastu eta dinamizatzeko formakuntza programan parte hartuko duten 4 artisten hautaketa.

3 - Programaren edukia

Hautatutako lau lagunen ezaugarrien arabera ikastaro eta festibaletarako asistentzia plangintza bat diseinatuko da, segipen taldearekin izango diren bilera pertsonalizatu bidez. Programa honek hiru ardatz izango ditu:

1 - Ikastaro programa

Bataz beste egun osoko sei formazio saioz (edo bi eguneko hiru saioz, adibidez) osatutako plangintza diseinatuko da hautagai bakoitzeko Europako baliabide-gune ezberdinetan. Ekipamendu hauek ikuslego honi zuzendutako Europako prestigio handieneko espazioak izango dira. Artista bakoitzak formatzeko guneak bilatu eta aukeratu beharko ditu, segipen taldearen babesean. Adibidez:

Frantzia

Marseilako Théâtre Massalia. Centre Européen de Productions Artistiques Jeune Public kudeatzen du eta Aix-en-Provence hiriko Irakasleen Formakuntzaren Unibertsitate Institutuarekin (IUFM) lanean ari da.

Reims hiriko Nova Villa elkarte Méli-Môme europar mailako festibalaren antolatzailea da eta formakuntza zikloak eskaintzen ditu haur ikuskizun sektoreko profesionalentzat.

Grenoble hiriko Espace 600 scène Rhône-Alpes / Théâtre jeune public gunea haur ikusgarri sektoreari dedikatua da, goraipatua eta programazio, topaketa edo eztabaidak antolatzen ditu urtean zehar .

Belgika

Bruselaseko Centre dramatique national Jeune Public Pierre de Lune, 25 urte darama haur ikuskizunen programazioan, eta formakuntzak antolatzen ditu.

Bruselaseko Théâtre de La Montagne magique haur ikuskizunen baliabide gunea bat da (Centre permanent de diffusion, d'animation, de formation et de documentation des Arts de la scène pour l'Enfance et la Jeunesse).

Alemania

Frankfurt-eko Kinder- und Jugendtheaterzentrum in der Bundesrepublik Deutschland haur antzerkian Europan onetsia den egitura.

2 – Festibaletara asistentziak

Haur eta gazte zuzendutako arte eszenikoen produkzio garaikide puntakoenak ezagutzeko aukera izateko gutxienez lau jaialdi ezberdinetara bertaratzeko ahalbidetuko zaie hautatuei, Espainian, Akitanian, Frantzian eta Europan.

Jaialdien hautaketa parte-hartzaileen arabera zehaztuko da, euren profiei hoberen egokitzen diren artean, adibidez: Sur un petit nuage festibala Pessac-en (Akitania), MOMIX festibala Kingersheim-en (Frantzia), Méli'Momes festibala Reims-en (Frantzia), Huy-ko festibala (Belgika), FETEN feria Gijónen (Asturias), On the Edge Festival (Birmingham)...

3 – Ikerketa edota proiektu proposamena

Deialdi honen bidez hautatuak izango diren sortzaileek programak irauten duen bitartean ikerketa edota proiektu proposamen bat landu beharko dute, jarraipen taldearen akonpainamenduarekin, eta ibilbide amaieran aurkeztu. Era berean, formazio denboraldian zehar parte-hartzaile eta jarraipen taldeko kideen artean hainbat bilera antolatuko da, irakaspen prozesu honen baitan izandako esperientzien inguruko elkar-jartze eta iritzi trukatzeko bermatzeko.

Programaren amaierako ikerketa lana Kimu proiektuko arduradunek antolatutako ekitaldian aurkezteko konpromisoa hartzen dute parte-hartzaileek, izan hau bilera itxia, jardunaldia, edo dena-delakoa.

4.- Parte-hartzaile / Hautagaien ezaugarriak

Deialdian parte-hartzen duten hautagaiak hurrengo ezaugarriak bete behar dituzte:

- Euskaraz komunikatzeko gaitasuna behar dute izan.
- Haur eta gazteen ikuskizunetan esperientzia egiaztagarria izan, edota, gutxienez, arte eszenikoetan parte hartzen duten disziplina ezberdinetan eskarmentua. Hau da, aktoreak, taula zuzendariak, dramaturgoak, koreografoak, dantzariak, musikariak...
- Programak iraungo duen hamabi hilabeteetan izango diren ikastaro eta jaialdietara joan ahal izateko ahalmena izan beharko dute. Egun formakuntza kopuru osoak ez du lau aste baino gehiago iraungo, aipatutako hamabi hilabeteetan banatuak izango direlarik.
- Ingelesa, gaztelera edota frantsesa jakitea bereziki baloratuko da.

Hautapen taldeak deialdian parte-hartzen duten hautagaien kurrikulua eta motibazio gutuna baloratzeaz gain, lau artistek osatuko duten oreka irizpideak ere hartuko dituzte kontuan.

5.- Parte-hartzeko modua

Deialdi honetan parte hartu nahi duten sortzaileek hurrengo dokumentuak bidali beharko dituzte:

- Izen-emate fitxa (erantsia)

- Motibazio gutun bat (gehienez bi orri)
- Curriculuma eta egindako lan eta proiektuen aurkezpena

Proposamenak irailaren 10eko eguerdia baino lehen bidali beharko dira hezkontza@dss2016.eu helbide elektronikora. Proposamena bidali bezain laister konfirmazio mezu bat bidaliko da, zuzen iritsi dela ziurtatuz.

Dokumentuen bidalketaz gain, aurre aukeratutako hautagaiekin elkarrizketa bat antolatuko da **2016eko** urriaren 6an.

6.- Hautapen eta segipen taldea

Hautapen eta segipen taldea hurrengo entitateek izendatutako ordezkari banaz osatua egongo da: Euskal Kultur Erakundea / Donostia 2016 Fundazioa / Donostia Kultura / Hego Lapurdi Hirigunea / Teatro Paraiso / Biarritz Culture

7.- Hautatuei ekarpena

Programa honen bidez, hautagai bakoitzarekin diseinatuko den formazio planaren gastuak estaliak izango dira, gehienezko hautagai bakoitzeko 5.000 €-ko mugarekin, hurrengo arloetan:

- Ikastaroetarako izen-emateak
- Garraio eta ostatu gastuak
- Per diem-ak, 35 € eguneko mugaz
- Festibaletako izen-emateak

Gainera, jarraipen taldearen akonpainamendua izango dute une oro, eta ikerlan edota egitasmo amaierako proiektua burutzeko egonaldi labur bat antolatu ahal izango da ere, horretarako baliabideak eskainiko direlarik.

8.- Ordainketa modua

Deialdi honen bidez hautatutako sortzaileek programaren oinarrien onarpen dokumentua sinatu beharko dute, diseinatutako ibilbidea eta proiektu/memoria aurkezteko konpromisoa hartuz. Bestalde, irteera bakoitzaren ondoren egindako gastuen likidazioa aurkeztu beharko du, deialdiaren baldintzak betez. Azkenik, dagokion kasuetan, hautatutako lagunek Ogasunarekin egunean egotearen agiria aurkeztu beharko dute.

9.- Ikerketa edota proiektu proposamenaren gaineko jabetza intelektuala

Hautatuek Donostia 2016 Fundazioari, Donostia Kulturari eta EKeri sortutako ikerketa edota proiektu proposamenaren gaineko ustiapen eta irudi eskubideak lagako dizkiote doan, baina ez eskusiban, 2017ko abenduaren 31ra arte, mundu osorako.

Aukeratutako artistek Donostia 2016 Fundazioari beren izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko berariazko onarpena emango diote.

Era berean, hautatuek deialdi honen baitan sortutako ikerketa-lan edo proiektua zabaldu edo/eta erabiltzekotan Kimuak programari erreferentzia egin beharko dio, derrigorrez.

10.- Datuak babesteko legea

DBLO-n xedatutakoari jarraiki, emandako datuak DSS2016EUren jabetzako datu-base informatizatu batean gordeko direla jakinarazten dugu eta DSS2016EUko programa eta jarduera kulturaleri buruzko informazioa bidaltzeko besterik ez direla erabiliko. Datu horiek ez zaizkio inola ere DSS2016EU ez den hirugarren bati emango. Dena den, informatzeko, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak beti gauzatu ahal izango dira, DSS2016EUren egoitzan idazki bat aurkeztuta (Easo 43 - 20006 Donostia) edo ondorengo helbidera helaraziz: info@dss2016.eu.

11.- Egutegia

Deialdiaren zabalpena: 2016eko uztailak 20
Deialdiaren itxiera: 2016eko irailak 10
Hautagaien hautaketa definitiboa: 2016eko urriak 10
Programaren hasiera: 2016eko urria
Ikerlanaren aurkezpena: 2017ko iraila

Kimu proiektuaren sustatzaileak

Euskal Kultur Erakundea
Donostia 2016 Fundazioa
Donostia Kultura

Argibide gehiagorako:

Mail: hezkontza@dss2016.eu